

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO KONTZEJU ELKARTEA

Arabar kontzejuetan merkataritza-zerbitzua sustatu, bultzatu, sortu eta dinamizatzeko logotipoa diseinatu eta eslogana sortzeko lehiaketaren oinarriak

Hitzaurrea

Arabako Kontzeju Elkarteak (AKE) logotipo eta eslogan bat egiteko lehiaketa antolatu du; arabar kontzejuetan merkataritza-zerbitzu txikia sustatu, bultzatu, sortu eta dinamizatzeko elkar-teak egiten duen sentsibilizazio-lana jasoko da aipatutako logotipo eta esloganaren bidez.

Lehiaketaren oinarriak

1. Helburua: AKEk hitzaurrean aipatutakoaren inguruan egiten duen sentsibilizazio-kanpainaren irudia jasoko duen logotipoa eta eslogana diseinatzea, eta kanpaina horri buruzko informazioa bere web-orriaren bidez edo beste agiri eta bitarteko batzuen bidez zabaltzeko erabiliko da.

2. Baldintzak eta baloratzeko moduko alderdiak: Arabar kontzejuetarako merkataritza-zerbitzu txikiaren baloreak islatuko duen logotipoa eta eslogana; hortaz, ondokoak baloratuko dira:

- a. Arabar kontzejuekin identifikatuko da.
- b. Merkataritza-zerbitzu txikiaren balore positiboak islatuko ditu.
- c. Elkartearen akronimoa agertuko da: ACOA

3. Parte-hartzaileak: Nahi duten gizabanako eta taldeek parte har dezakete. Lehiatzaile bakoitzak gehienez bi diseinu aurkez ditzake. Lehiaketan parte hartuz gero, oinarri hauek guztiak onartu beharko dira.

4. Proposamena: diseinua eta eslogana orijinalak eta berriak izango dira.

5. Dokumentazioa: A4 tamainako gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira, eta "logotipo eta eslogan lehiaketa" baino ez du jarriko gutun-azalean. Barruan ondokoak sartuko dira:

- a. A4 neurriko orria, lehiaketarako erabiliko den izengoitia idatzia eta ondokoak:
 - i. Logotipoaren eta esloganaren bertsioa neurri handian eta kolorez (25 x 11,5 cm gehien jota)
 - ii. Logotipoaren bertsio txikia eta eslogana kolorez. Testuak irakurtzeko modukoa izan behar du. (6,5 x 3 cm gehien jota)
- b. Aurreko orriaren fotokopia zuri-beltzean. Zuri-beltzeko testuak irakurtzeko modukoa izan behar du.
- c. Euskarri digital estandarizatua (cd-rom, usb memoria edo sd) irudiarekin bitmap-en (bitmapa), "jpg" edo "png" formatuan. Irudiak 300x300 (pixel/pulgada) erresoluzioa eta 1.800 pixeleko tamaina izan behar du, neurri txikienekoak (zabalera x altuera). Artxihoak lehiaketarako erabili den izengoitiaren izena izan behar du, "jpg" edo "png" hedapenarekin (formatuaren arabera). Euskarri digitalak lehiaketarako erabili den izengoitiaren bidez identifikatuko da.
- d. Bigarren gutun-azal itxi bat, aurrekoa baino txikiagoa, eta barruan izena, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa eta egilearen edo taldearen beste datu pertsonal batzuk. Kanpoaldean lehiaketarako erabili den izengoitia baino ez da agertuko.

6. Aurkezteko epea: diseinuak aurkezteko epea 2016ko azaroaren 2an hasi eta azaroaren 14an amaituko da. Epe horretan, lehiatzaileek lanak ondoko helbidera bidali beharko dituzte: Arabako Kontzeju Elkarteak (AKE) Elorriagan (Araba) duen egoitzara.

7. Epaimahaia: Elkarteko Zuzendaritza Batzarrak eta arabar kontzejuetan merkataritza-zerbitzu txikia dinamizatzeko kanpainaren arduradunek osatuko dute epaimahaia. Ezingo dute lehiaketan parte hartu ez epaimahaikideek ez elkarteko langileek.

8. Epaimahaiaren erabakia: aurkeztutako diseinu guztietatik bat aukeratuko du epaimahaiak, eta hori izango da irabazlea. Lehiaketa ezin da irabazlerik gabe gelditu. Ezingo da epaimahaiaren erabakiaren aurka jo. Epaimahaiaren erabakia jendaurrean jarriko da elkartean web-orriaren bidez; gainera, irabazleari posta elektronikoz jakinaraziko zaio.

9. Sariaren hornidura: saria 500 eurokoa izango da. Indarreko zerga-araudia beteko da beti.

10. Jabetza intelektuala: logotipo sariduna elkartearena izango da soilik eta betiko; askatasun osoa izango du osoa edo zati bat erabiltzeko eta nahi duenean eta nahi duen bezala aldatzeko egokia irudituz gero. Hori dela eta, lehiaketaren irabazleak, saria jaso ahal izateko, egindako logotipoaren bertsio informatikoa eman beharko du, diseinatzeko erabili duen jatorrizko aplikazioarekin.

11. Saria ematea: saria elkartearen egoitzan emango da finkatzen den egun eta orduan. Ekitaldi horretan, aurkeztutako diseinu guztiak erakutsiko dira. Ekitaldi horren ostean, saria jaso ez dutenak elkartearen egoitzara joan daitezke euren lanen bila.

Elorriaga, 2016ko, urriaren 20a

Lehendakaria

JAVIER ARGOTE URCELAI